



MUSIKA

Estralurtarrak: inoiz izan ez den talde bat?



**ANOTHER FRONTLINE
COMPILATION 94/00**
ESTRALURTARRAK
HEGOA DISKAK

XALBA RAMIREZ

Whatsapp bidez heldu zait. Kobaneko Josebak entzun berri du *Paralelo3-n*, 1990eko hamarkadako Iruñeko elektronika talde baten kantu bilduma kaleratu duela Hegoa Diskak diskoetxeak. Diskoetxea ezagutu bai, baina Another Frontline Compilation 94/00, ez.

Ximaurre ona, bai. Barrionuevo, Alternatiba Demokratikoa, eta beste garaiko diskurtso politikoak sampleaturik, erritmo kutxa analogikoak, eta sintetizagailu monofonikoen laguntzaz. Erdizka ekualizatuta, batzuetan nahigabeko polirritmiak sortzen dira.

Estralurtarrak da taldearen izena eta taldekideak MC Buztana, DJ Ipurdi, Urtzi eta Ekaitz. Zortzi EP kaleratu zituzten 1994 eta 2000 artean, eta ondorengo diskoetxeak hala du jasota: "Bigarren Aukera izeneko teknopop talde berria osatu omen zuten, inolako arrakastarik gabe". Influentzien artean Hemendik At! aipatzen dute, baina horien lehen lana 1997koa da eta ordurako estralurtarrek

bost EP kaleratuak zituzten. Zerbait ez doa ondo.

Iruñeko konfiantzazko ximaurre bantzaileari bota diot. Eta hara, berak ere ez du ezagutzen. Mugimendu hartan zebilen jendea galdetu behar! Klub zaleak, raverak, musikazale frikiak... Zeru eta lurrean inork ez daki ezer estralurtarrei buruz.

Googlek ere, ezer gutxi: bi blog sarrerak dira, baina sorpresa, editatuak daude! Bideoa Euskadi Gaztean eginda, buztana labur. Bikoizketa da, eta gainera, Urola Kostako euskalkian!

Hegoa Diskak-eko Mikel Acostaren gana jo dugu, beraz. Musikazale amorratua, altxor bilatzailea. Gure aurkikuntzaren berri ematean zur eta lur geratu da: "Zer diozue baina, ez direla existitu?". Martin lagunak deskubritu zuen taldea, Youtubeko *El barco chino* kanalean. Estralurtarrak-en 'club fan' batekin egin zuen topo eta berak pasa zizkien kan-

tuak, EGiko Julian Jantzi edo Bozkatu Herri Batasuna afixekin egindako diskoen azalak barne.

Euskal Rock Erradikalaren 80ko hamarkadaz gehiegi hitz egin da gurean. Ezer gehiago gertatu izan ez balitz bezala. 90eko hamarkada aski emankorra izan dugula gogoratu behar behin eta berriz. Garaiko punk eta hardcoreak Ingalaterratik zetorren elektronika berria ezagutu zuen, bakalaoa eta technoa etorri aurretik, Massive Attack eta The Prodigy taldeen bidez. Esperimentazioa hasi zen, disko txikiak grabatuz eta lagunaren artean banatuz.

Estralurtarrak-en misterioa argitu gabe jarraitzen dugu. Baziren? Dena *fake* bat da Ferminen Zuloak-en bezala? Edo besterik gabe, etxean musika elektronikoarekin esperimentatu zuen lagun taldea da, sekula bere lana kaleratu ez zuena, eta orain tankera honetako mezuren bat bidali nahi dugu: "Bai, gu han izan ginen eta etorkizunetik gatoz". Elektronika gauza zaharra delako, lagun. ●